

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3577

EBAZPENA, 2026ko abuztuaren 6koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, 2021eko urtarrilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean Haur Hezkuntzako lehen zikloan (0-3 urte) eskolatzeko-plazak sortu direla egiaztatzen duena, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan Eskolatzeko Bultzatzeko Programaren esparruan, lehentasunez 1 eta 2 urteko haurrei zuzenduta, titulartasun publikoko plaza berriak sortuz.

Osagaia: C21.11 Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko titulartasun publikoko plazak sortzea (lehentasunez 1 eta 2 urtekoak) Next Generation funtsak.

2021-2022 ikasturtetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolatzeko bultzatzeko programan parte hartzen du, lehentasunez 1 eta 2 urteko haurrei zuzenduta, titulartasun publikoko plaza berriak sortuz. Programa hori Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak (SEM) NextGenerationEU funtsen bidez finantzatzen da, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren (HLHKM) bitartez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) 21. osagaiaren barruan, hau da, «Hezkuntza-sistema modernizatzea eta digitalizatzea, 0-3 urteko hezkuntza goiztiarra barne», 01 inbertsioaren esparruan, CID 309 helburua lortzeko (0-3 urteko Haur Hezkuntza azpiproiektua, Euskadi).

Programa honen funtsezko helburua da haurrek eta haien familiek Haur Hezkuntzako lehen zikloan plaza irigarria, eskuragarria, inklusiboa eta kalitate handikoa izateko duten eskubidea zabaltzea, titulartasun publikoko plaza berriak sortuz (lehentasunez 1 eta 2 urtekoak). Programaren ezarpen progresiboan, lehentasuna eman beharko zaio pobrezia-arriskua edo gizarte-bazterketa jasateko arrisku handiagoa duten eremuetako ikasleen sarbideari, bai eta landa-eremuetara hedatzeari ere. Ziklo honetan eskolatzeko zabaltzeak ikasleen ekonomia-, gizarte-, lurralde- eta kultura-jatorriko desberdintasunek eragiten dituzten ondorioak orekatu behar ditu. Gainera, plaza publiko berrien sorrera Haur Hezkuntzako lehen ziklorako gutxieneko betekizunetara egokituko da.

Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 25eko, 2022ko abenduaren 13ko eta 2023ko abenduaren 13ko erabakiekin bat etorriz 2021eko abenduaren 23ko Ebazpenaren bidez («Estatuko Aldizkari Ofiziala», abenduaren 29koa), 2022ko abenduaren 28ko Ebazpenaren bidez («Estatuko Aldizkari Ofiziala», abenduaren 20koa) eta 2023ko abenduaren 19ko Ebazpenaren bidez («Estatuko Aldizkari Ofiziala», abenduaren 26koa) argitaratuak hurrenez hurren-, Euskadiri 1518 plaza sortzea esleitu zitzaion 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean, Ministerioak autonomia-erkidego guztietarako erabilitako irizpideen arabera. Kopuru hori 1385 plazara murriztu zen Ministerioak 2026ko apirilean egindako birbanaketaren ondorioz.

Eusko Jaurlaritzak hainbat jarduketa egin ditu Haur Hezkuntzako lehen zikloko unitate berriak sortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin lankidetzan:

- 2023an, 0-2 urteko plaza publiko berriak sortzeko bi zuzeneko dirulaguntza eman zituen.
- 2024an, lehia askeko dirulaguntzen lehen deialdi bat eta ondoz ondoko lehiako bigarren deialdi bat egin zituen.

Aipatutako deialdien xedea Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak ematea izan da titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura- eta funtzio-

namendu-gastuak finantzatzeko; plaza horiek 2021eko urtarrilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean sortu dira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

2026ko ekainaren 22an argitaratu zen Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariaren 2026ko ekainaren 9ko Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean Haur Hezkuntzako lehen zikloan (0-3 urte) eskolatze-plazak sortu direla egiaztatzen duena, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan Eskolatzea Bultzatzeko Programaren esparruan, lehentasunez 1 eta 2 urteko haurrei zuzenduta, titulartasun publikoko plaza berriak sortuz.

Ebazpen horren eranskinean, 0 eta 2 urte bitarteko gela berrietarako gehieneko ratioari dagozkion plazak argitaratu ziren; gehieneko ratioa 2 urteko gelei dagokiena dela ulertzen da, baimendutako gela berri guztiak adin-tarte horretarako erabil baitaitezke.

Hala ere, ebazpen horretan argitaratutako plaza-kopuruaren eta plazak hasiera batean sortu eta baimendu zituzten aginduetan jasotakoen artean desadostasuna dagoela ikusita, beharrezkotzat jo da ebazpen berri bat argitaratzea, jatorrizko datuak eta une honetan egiaztatzen direnak bateratzeko.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egiaztatzea eta argitara ematea 2021eko urtarrilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean titulartasun publikoko eskolatze-plaza berriak sortu direla, 0, 1 eta 2 urteko ikasleentzat, eranskinean adierazitako ikastetxeetan, Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolatzea bultzatzeko programaren esparruan, lehentasunez 1 eta 2 urteko haurrei zuzenduta, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak eta Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak – NextGenerationEUK finantzatuta.

Bigarrena.– Indarrik gabe uztea 2026ko ekainaren 9ko Ebazpena.

Hirugarrena.– Egiaztatzeko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 6a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,
EUGENIO JIMENEZ IBAÑEZ.



ERANSKINA

Ondoren adierazten diren plaza osorik edo partzialki sortu dira Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak (SEM) – NextGenerationEU funtsen bidez emandako baliabideekin martxan jartzeko, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren (HLHKM) bitartez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) 21. osagaiaren barruan, hau da, «Hezkuntza-sistema modernizatzea eta digitalizatzea, 0-3 urteko hezkuntza goiztiarra barne», 01 inbertsioaren esparruan, CID 309 helburua lortzeko (0-3 urteko Haur Hezkuntza azpiproiektua, Euskadi).

1. taulan jaso dira EHAA-n argitaratutako irekitzeko eta jarduteko baimen-aginduen bidez sortu ziren plaza; agindu horiek taula berean agertzen dira:

2. taulan jaso dira irekitzeko eta jarduteko baimena Haurreskolak Partzuergoko beste haur-eskola batzuekin batera emandako agindu bateratuetan integratuta duten eskoletan sortu eta baimendutako plaza.

1. TAULA

HAURRESKOLA BAKOITZERAKO AGINDU ESPEZIFIKOAREKIN SORTUTAKO PLAZAK

Lurralde historikoa	Udalerria udala	Ikastetxearen izena	Ikastetxearen kodea (Unibertsala/ MEC)	0 urteko unitateak (8 plaza/unit.)	1 urteko unitateak (13 plaza/unit.)	Sortutako plaza	EHAako argitalpena	EHAako argitalpenari buruzko iruzkinak
Araba	Labastida	EIC Bastidako Haurreskola PHE	01006939	0	1	13	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/04/2601486a.shtml	2026/04/08ko 1486 Agindua: Labastidan 1 urteko gelan 1 handitzea baimentzen du.
Araba	Vitoria-Gasteiz	Gasteizko Haurreskola-Lakuabizkarra	01006964	2	0	16	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/p43aBOPVWebW/r/VerParalelo.do?cd2025002111	2025/05/06ko 2111 Agindua: 0-1 urteko 2 gela berri baimentzen ditu Lakuabizkarra, Vitoria-Gasteiz.
Araba	Vitoria-Gasteiz	Gasteizko Haurreskola-Landaberde	01006903	2	0	16	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2025/04/2501596a.shtml	2025/04/10eko 1596 Agindua: 0-1 urteko 2 gela berri baimentzen ditu Landaberde, Vitoria-Gasteiz.
Bizkaia	Bilbao	EIC Bilboko Haurreskola-Elejabarri PHE	48017290	0	2	26	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2025/09/2503910a.shtml	2025/09/02ko 3910 Agindua: 2 unitate handitzea baimentzen du (1) = 26 plaza, Bilboko Haurreskola-Elejabarri ikastetxean.
Bizkaia	Bilbao	EIC Bilboko Haurreskola-San Inazio PHE	48016844	0	3	39	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/06/2602919a.shtml	2026/06/30eko 2919 Agindua: Bilboko San Inazio 1-2 urteko 3 unitate handitzea baimentzen du.

2026ko abuztuaren 12a, asteazkena

Lurralde historikoa	Udalerrria udala	Ikastetxearen izena	Ikastetxearen kodea (Unibertsala/ MEC)	0 urteko unitateak (8 plaza/unit.)	1 urteko unitateak (13 plaza/unit.)	Sortutako plazak	EHAako argitalpena	EHAako argitalpenari buruzko iruzkinak
Bizkaia	Bilbao	EIC Bilboko Haurreskola-Zamakola PHE	48016212	0	4	52	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/07/2603022a.shtml	2026/07/03ko 3022 Agindua: Bilboko Zamakolan 4 unitate handitzea (1-2 urte) baimentzen du.
Bizkaia	Bilbao	Haurreskola CEIP Txurdinaga	48020011	0	4	52	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/07/2602988a.shtml	2026/07/02ko 2988 Agindua: Bilboko Txurdinagan haurreskola berria baimentzen du, 4 unitate sortuz (1-2 urte).
Bizkaia	Busturia	EIC Busturiako Haurreskola-Seintxu PHE	48016224	0,5	0,5	11	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2025/06/2502741a.shtml	2025/06/19ko 2741 Agindua: Busturiako instalazioak handitzea baimentzen du eta taldekatze-unitate 1eko irakaskuntza baimentzen du.
Bizkaia	Getxo	Haurreskola Kresaltsu	48019912	1	2	34	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/06/2602849a.shtml	2026/06/25eko 2849 Agindua: Getxoko Kresaltsu handitzea baimentzen du, 0 urteko gela 1 eta 1 urteko 2 gela.
Bizkaia	Loiu	EIC Haurreskola Arrietane Fundazioa PHE	48020094	1	1	21	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2025/07/2504323a.shtml	2025/10/14ko 4323 Agindua: Loiuako Haurreskola Arrietane Fundazioa ireki eta jardunean jarzea baimentzen du, 0 urteko unitate 1 eta 1 urteko unitate 1 sortuz.
Bizkaia	Santurtzi	EIMU Mamariga Haurreskola UHE	48020203	1	1	21	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/05/2601895a.shtml	2026/05/07ko 1895 Agindua: Santurtziko Mamariga haurreskolari 2 gela berri baimentzen dizkio, 0 urteko 1 eta 1 urteko 1.
Gipuzkoa	Donostia	EIC Donostiako Haurreskola-Intxaurrondo PHE	20015007	1	1	21	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/07/2602989a.shtml	2026/07/02ko 2989 Agindua: Donostiako Intxaurrondo haurreskola berria baimentzen du, unitate 1 (0-1) eta unitate 1 (1-2) sortuz.
Gipuzkoa	Donostia	EIC Donostiako Haurreskola-Loiola PHE	01006885	1	2	34	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/06/2602870a.shtml	2026/06/26ko 2870 Agindua: Donostiako Loiola haurreskola berria baimentzen du, unitate 1 (0-1) eta 2 unitate (1-2) sortuz.
Gipuzkoa	Donostia	Haurreskola Zemorria-Gros	20015639	1	2	34	https://www.euskadi.eus/we/b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/07/2603021a.shtml	2026/07/03ko 3021 Agindua: Donostiako Zemorria-Gros haurreskola berria baimentzen du, unitate 1 (0-1) eta 2 unitate (1-2) sortuz.

2026ko abuztuaren 12a, asteazkena

Lurralde historikoa	Udalerrria udala	Ikastetxearen izena	Ikastetxearen kodea (Unibertsitatea/ MEC)	0 urteko unitateak (8 plaza/unit.)	1 urteko unitateak (13 plaza/unit.)	Sortutako plazaak	EHAako argitalpena	EHAako argitalpenari buruzko iruzkinak
Gipuzkoa	Eibar	Eibarko Haurreskola-Blas Etxebarria	20015822	2	0	16	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/05/2602011a.shtml	2026/05/14ko 2011 Agindua: Eibarko Blas Etxebarria Haurreskola irekitzea baimentzen du eta 0-1 urteko haurrentzako 2 unitate izendatzen ditu baimendutako irakaskuntza gisa.
Gipuzkoa	Eibar	Jazinto Olabe Haurreskola	20015810	1	1	20	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/04/2601740a.shtml	2026/04/27ko 1740 Agindua: Eibarko Jazinto Olabe haurreskola irekitzea baimentzen du, 2 gela mistorekin.
Gipuzkoa	Oñati	EIC Oñatiko Haurreskola-Txiki Txoko PHE	20013369	0	1	13	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/07/2603158a.shtml	2026/07/10eko 3158 Agindua: Oñatiko Txiki-txoko Haurreskolan unitate 1 handitzea (1-2 urte) baimentzen du. 2026/07/10ean argitaratu zen EHAA, eta sailburuordeak 2026/07/02an sinatu zuen; horregatik, CoFEEren egiaztapen-mekanismoa ez da banakako agindu gisa sartu, baizik eta Astigarragakoaren agindu beraren barruan: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/01/2300120a.shtml
Gipuzkoa	Orio	EIC Orioko Haurreskola-Maria Maestra PHE	20013709	0	1	13	https://www.euskadi.eus/we-b01-bopv/es/bopv2/datos/2026/03/2601358a.shtml	2026/03/27ko 1358 Agindua: Orioko Maria Maestra Haurreskolan 1-2 urteko unitate 1 handitzea baimentzen du.
Next-MRRk finantzaturako sortutako plazaak							452	



2. TAULA

HAURRESKOLA BAKOITZERAKO AGINDU ESPEZIFIKORIK GABE SORTUTAKO PLAZAK

Lurralde historikoa	Udal onuraduna	Ikastetxearen izena	Ikastetxearen kodea (Unibertsala/MEC)	0 urteko unitateak (8 p/unit.)	1 urteko unitateak (13 p/unit.)	Sortutako plazarak	EHAako argitalpena
Bizkaia	Bilbao	EIC Bilboko Haurreskola-Indautxu PHE	48019833	2	2	42	2023ko uztailaren 18ko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Bilboko Haurreskola-Indautxu» Haurreskolak Partzuergoko Haur Eskola ireki eta jardunean jartzeko baimena ematen duena.
Bizkaia	Bilbao	EIC Bilboko Haurreskola-Larreagaburu PHE	48016200	1	1	21	2022ko abenduaren 19ko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, zenbait haur-eskolaren baimena aldatzen duena eta «Haurreskolak» Partzuergoko haur-eskolen zerrenda argitaratzen duena.
Bizkaia	Galdakao	EIC Galdakako Haurreskola-Bizkai PHE	48016251	2	0	16	2022ko abenduaren 19ko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, zenbait haur-eskolaren baimena aldatzen duena eta «Haurreskolak» Partzuergoko haur-eskolen zerrenda argitaratzen duena.
Bizkaia	Güeñes	EIC Güeñesko Haurreskola-Eretza PHE	48019808	1	1	21	2022ko otsailaren 8ko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, zenbait haur-eskolaren baimena aldatzen duena eta «Haurreskolak» Partzuergoko haur-eskolen zerrenda argitaratzen duena.
Gipuzkoa	Astigarraga	EIC Astigarragako Haurreskola-Kiriketa PHE	20013953	1	1	21	2022ko abenduaren 19ko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, zenbait haur-eskolaren baimena aldatzen duena eta «Haurreskolak» Partzuergoko haur-eskolen zerrenda argitaratzen duena.

Lurralde historikoa	Udal onuraduna	Ikastetxearen izena	Ikastetxearen kodea (Unibertsala/MEC)	0 urteko unitateak (8 p/unit.)	1 urteko unitateak (13 p/unit.)	Sortutako plazak	EHAako argitalpena
Gipuzkoa	San Sebastian	EIC Donostiako Haurreskola-Urbieta-Urdaneta PHE	20014180	0	1	13	2022ko abenduaren 19ko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, zenbait haur-eskolaren baimena aldatzen duena eta «Haurreskolak» Partzuergoko haur-eskolen zerrenda argitaratzen duena.
Gipuzkoa	Hernialde	EIC Hernialdeko Haurreskola PHE	20015500	0,5	0,5	10	2022ko abenduaren 19ko AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, zenbait haur-eskolaren baimena aldatzen duena eta «Haurreskolak» Partzuergoko haur-eskolen zerrenda argitaratzen duena.
Next-MRRk finantzatutako sortutako plazak						144	